

A AUKERATIK ETA B AUKERATIK HAUTA DITZAKEZU GALDERAK, ATAL BAKOITZEAN ADIERAZTEN DEN BEZALA

A aukera

Zabor digitala

- 1 Mugikorretan¹ pilatzen zaigun edukia etorkizunean erabilgarri izango dela uste izaten dugu gehienetan, eta, badaezpada, jaso egiten dugu. Material digital horren desagertzeak antsietatea sortzen dio jendeari. Are gehiago, zenbaitek zabor digital hori jasotzeko disko gogorak² erosten ditu, egunen batean aspaldi iritsitako dokumentu, bideo edota argazkia erabiliko dituelako esperantzan. 1
- 5 *Western Digital* enpresaren arabera, hilabete behin hamarretik ia lau pertsona espaziorik gabe gelditzen dira mugikorrean edo beste tresna digitaletan eta artxiboak ezabatu behar izaten dituzte. 5
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle eta irakasle batzuekin hitz dugu eta hauxe izan da gai honen inguruan esan digutena:
- 10 Julen San Martinek, adibidez, esaten du mugikorrera iristen den "ia guztia" zaborra dela, "taldeetara bidalitako guztia". Iñigo Garraldak eduki digital horiek denbora luzean izaten ditu bere gailuan. "Edukia denbora batez mugikorrean mantentzen dut, baino gero, nazkatzen naizenean, sei bat hilabetera edo, garbiketa bat egiten dut eta dena borratzen dut, zabor asko pilatzen zaidalako", azaldu du. 10
- 15 Mikel Goikoetxeak, berriz: "Galeriara joaten naizen bakoitzean argazkiak pilatuta ikusten ditudan arren, bertan uzten ditut eta ahaztu egiten dut", dio. Alazne Pitillasek bidaiak aprobeztatzen ditu bere sakelakoan garbiketak egiteko: "Noizbehinka³, trenean edo autoan, sartzen naiz eta dena ezabatzen hasten naiz", azaldu du. 15
- Zabor digitala saihesteko⁴, aldiro⁵ garbiketak egitea eta aplikazioen iragazkiak⁶ aktibatzea aholkatzen⁷ du Pitillasek. Berari behintzat laguntzen dio: "alde batetik, hilabete behin-edo zaborra ezabatzeko ohitura hartu dut, eta, beste alde batetik, Whatsapp aplikazioak edukiak ez deskargatzeko eskaintzen duen aukera aktibatu dut".

HABE Ikasbil aldizkari digitala, 2021/10/15 (MOLDATUA)

[¹] Mugikorra: teléfono móvil. [²] disko gogorak: discos duros. [³] Noizbehinka: de vez en cuando. [⁴] saihesteko: para evitar. [⁵] aldiro: todo el tiempo, a cada paso, cada vez. [⁶] iragazkiak: filtros. [⁷] aholkatu: aconsejar.

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- **A1 ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A1.1., A1.2., A1.3., B1.1., B1.2 eta B1.3)
 - A1.1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *jendeari* (2), *enpresaren* (5), *Publikoko* (7), *mugikorrera* (9), *mugikorrean* (11). (1 puntu)
 - A1.2.- Testuinguruan egokia den sinonimo bat eman: *tresna* (6), *esan* (8), *adibidez* (9), *guztia* (9), *asko* (12). (1 puntu)
 - A1.3.- Berridatzi mendeko perpaus hauek (1 puntu):
 - "... aspaldi iritsitako dokumentu..." (3): (_____ -riko _____)
 - "... taldeetara bidalitako guztia..." (9-10): (_____ -n _____)
 - "..., zabor asko pilatzen zaidalako" (12): (_____ eta)
 - "... argazkiak pilatuta ikusten ditudan arren" (13): (Nahiz eta _____ -n)
 - "...deskargatzeko eskaintzen duen aukera" (18): (_____ -tako _____)
- **A2 ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A2.1., A2.2., A2.3., B2.1., B2.2. eta B2.3)
 - A2.1. Testuaren ulermena: Zergatik jaso egiten dugu mugikorretan pilatzen zaigun edukia? (1 puntu)
 - A2.2. Testuaren ulermena: Zer egiten du Iñigo Garraldak sei bat hilabetera edo? (1 puntu)
 - A2.3. Testuaren ulermena: Zertarako aholkatzen du Pitillasek garbiketak egitea eta aplikazioen iragazkiak aktibatzea? (1 puntu)
- **A3 ATALA** (GALDERA 1 AUKERATU BI HAUEN ARTEAN: A3.1 eta B3.1)
 - A3.1. Idatzi testuari edota gaiari buruz (gutxienez 150 hitz). (4 puntu)

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A1.1. B1.1. A1.2.
B1.2. A1.3. B1.3.

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A2.1. B2.1. A2.2.
B2.2. A2.3. B2.3.

Galdera 1 aukeratu bi hauen artean

A3.1 B3.1

B Aukera

“Euskaltegiak asko laguntzen du” (Iñigo Enrique, Ribaforada, 1995)

1 “Erriberan, gutxi gara euskal hiztunak” dio Enriquek. Nahiz eta Nafarroako Erriberakoa izan, herritik atera zen eta egun Erripagañan bizi da, Eguesibarren. Lanbidez programatzailea, hirugarren ikasturtea du Iruñeko *Iruñezar* AEKn¹.

Nolatan iritsi zinen euskarara?

5 Gurasoek nahi zuten ikastea. Beste gurasoekin batera, herrian D eredia jarri nahi izan zuten arren, ezin izan zuten. A ereduan ikasi nuen eta euskara pixka bat ikasi nuen. Gero, dena ahaztu zitzaidan. Ondoren, Madrilera ikastera joan, eta berdin. Iruñera itzultzean, mendi ibilaldi batean, Lizarragan gazta saltzen zuen baserritar batek euskaraz hitz egin zidan. Nik ez nekiela eta mesedez gaztelaniaz egiteko erantzun nion. Biok nafarrak izanik, bere hizkuntza zergatik aldarazi² behar nion pentsatu nuen. Interneten euskara nola ikasi bilatu eta hurrengo astean AEKn eman nuen izena.

Nolako prozesua izan duzu?

15 Oso ona. Euskaltegirik³ gabe, nire ustez, ezinezkoa izango litzaidake. Ez neukan inguru euskaldunik, eta euskaltegiak hori ematen dizu. Eskolak jasotzeaz gain, afariak eta lagunekin abesteko saioak ere egiten ditugu. Euskara ikasteko errazagoa da, prozesua errazagoa da. Hasiera-hasieratik ikasitakoa erabiltzen nuen, eta oso ongi.

Zer izan da zailena?

Beldurra kentzea edo ausartzea, hau da, euskaraz hitz egiten hastea. Askotan ez naiz euskaraz hasten ausartzen, ez baitakit solaskidea euskalduna den aia ez.

Eta errazena?

20 Agian, ikasten hastea. Nik bat-batean erabaki nuen euskaltegian izena eman nahi nuela, eta erabaki nuena egin nuen bi aldiz pentsatu gabe. Ingelesarekin edo beste hizkuntza batzuekin ere gertatzen zait, baina ez naiz ausartzen. Euskararekin, ordea, bai; izena zalantza egin gabe eman nuen. Euskaltegiak asko laguntzen du. Burugogorra⁴ naiz euskararekin, eta beti nabil irakurtzen edo hitzak apuntatzen. Beldurrez, bai, baina beti ausartzen naiz euskaraz egiten.

Aizu! 2021/12/01, <https://www.aizu.eus/zelan-euskaraz> (MOLDATUA)

[¹] AEK: red de academias de euskera para adultos. [²] *aldarazi*: hacerle cambiar. [³] *euskaltegia*: academia de euskera. [⁴] *Burugogorra*: cabezón, terco/a, obstinado/a.

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- **B1 ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A1.1., A1.2., A1.3., B1.1., B1.2 eta B1.3)
 - B1.1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *herritik* (1), *Lanbidez* (2), *gurasoekin* (5), *euskaltegiak* (13), *afariak* (13). (1 puntu)
 - B1.2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoa eman: *hitz egin* (8), *lagunekin* (13), *abesteko* (13), *Agian* (20), *beste* (21). (1 puntu)
 - B1.3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - “*Nahiz eta* Nafarroako Erriberakoa izan” (1): (_____ arren)
 - “... D eredia jarri nahi izan zuten *arren*” (5): (_____ ba- ... ere)
 - “... *ikasitakoa* erabiltzen nuen” (14): (_____-rikoa)
 - “...ez *baitakit* solaskidea euskalduna den” (18): (_____-lako)
 - “...eta *erabaki nuena* egin nuen...” (20-21): (_____-takoa _____)
- **B2 ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A2.1., A2.2., A2.3., B2.1., B2.2. eta B2.3)
 - B2.1. Testuaren ulermena: Iñigo Enrique Erriberan bizi al da? Azaldu zure erantzuna. (1 puntu)
 - B2.2. Testuaren ulermena: Zer gertatu zitzaion Iñigo Enriqueri Lizarragan mendi ibilaldi batean? (1 puntu)
 - B2.3. Testuaren ulermena: Zergatik esaten du Iñigo Enriquek burugogorra dela euskararekin? (1 puntu)
- **B3 ATALA** (GALDERA 1 AUKERATU BI HAUEN ARTEAN: A3.1 eta B3.1)
 - B3.1. Idatzi testuari edota gaiari buruz (gutxienez 150 hitz). (4 puntu)

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A1.1. B1.1. A1.2.
B1.2. A1.3. B1.3.

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A2.1. B2.1. A2.2.
B2.2. A2.3. B2.3.

Galdera 1 aukeratu bi hauen artean

A3.1 B3.1.